



**2017KO AZAROAREN 28KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeita zortzian, iluntze-ko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jabier Arrasate Aierbe, Azeari Andonegi Beristain, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Aitor Altuna Oiarbide zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko urriaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- GARAI BATEKO 32 POLIGONOKO ZESIOKO LURSAILAK OKUPATU ETA UDALAREN IZENEAN INSKRIBATZEA.-**

Gipuzkoako Arkitektura eta Hirigintzako Lurralde Batzordeak, 1967ko azaroaren 10ean hartutako akordio bidez, Lazkaoko Hiri Antolaketaren Plan Orokorreko 32. Poligonoaren Plan Partziala onartu zuen. Plan hau Infantadu Dukeak sustatu eta Ramon Gabarain eta Juan Miguel Rezola arkitektoek idatzitakoa zen.

Plan partzial horretan oinarrituta eraiki ziren bere egunean Gurutze 1, Gurutze 2, Gurutze 4, Gurutze 5, Gurutze 6, Hirigoien 14, Hirigoien 16-18, Hirigoien 24-26, Hirigoien 28-30, Gurutze 3, Hirigoien 20, Hirigoien 22 y Jose Lasa 1 egoitzarako eraikinak.

Hirigintza kudeaketari dagokion atalean, Birpartzelazio Proiekturik ez zen onartu eta ez ziren ezta, onartutako antolaketaren arabera udal titulartasunekoak izan behar ziren azalerak eman.



32. Poligono hartan barneratutako lursail guztiak erregistroko 1660 zbk.dun finkarekin bat zetozen, eta hartatik bakandu egin ziren azalerak egoitza eraikinak eraikitzen joan ahala.

Gaur egun, eta eraikitako blokeen eraikuntzarako egindako bakanketen ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan finka hau *HAMABI ZENBAKIDUN LURSAILA bezala definitzen da eta Lazkaoko hiribilduko 32. Poligonoan eraikitza eta urbanizatza bideratutako lurzoru hondar gisa gelditzen da, San Inazio Auzoa, egindako bakanketen ondoren hamar mila seiehun eta hamazazpi metro karratu (10.617,00 m<sup>2</sup>) dituen.*

Eraikin berriak ahalbidetzeko 1660 zbk.dun finkatik bakantzen joan ziren lursailak, bloke bakoitzaren obra berrien aitorpenak egin eta jabetza horizontalaren araubidean konfiguratu ziren uneetan, egoera ezberdinetan aurkitzen dira, baina guztietatik bat bakarrean ere ez ziren udalera eman onartutako antolamenduak udal jabarira eman behar zirela zehazten zituen lurzoruak.

Elkartzen diren egoera ezberdinak eta kasu bakoitzean ukitutako azalerak 2017ko maiatzean idatzitako dokumentuan jasota datoz, honako izenburua duena "Lazkaoko Hiri Antolaketako Plan Orokor zaharreko 32. Poligonoaren antolaketa eta kudeaketarako izapidetutako hirigintza dokumentuei buruzko Azterketa: Gurutze inguruko barneko plazen eta jabari eta erabilera publikoa duten gainontzeko azalaren erregistroko egoera (indarrean dauden Antolaketako Arau Subsidiarioetako 13 H.J.A. Hirigoien)".

Egoera hau erregularizatzeko prozedura uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuak, Hirigintza Izaerako Egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruz Hipoteka Legea burutzeko Arautegiaren Arau Osagarriak onartzen dituenak, bere 30 eta 31. artikuluetan finkatzen duela.

Aipatu aurrekarien oinarriarekin eta aipatutako arauzko xedapeneko 30 eta 31 artikuluetan xedatutakoarekin bat, eta emanak izan behar ziren lurak Jabetza Erregistroan Lazkaoko Udalaren izenean jartzeko helburuarekin, Alkatezak zera ebatzi zuen:

"Lehena.- Aurreko aurrekarietan azaldutako egoera zuzentzeko espedientea hastea eta 32. Poligonoko Plan Partzialak Lazkaoko Udalari eman behar zitzaizkiola zehaztutako lursailak Lazkaoko Udalaren izenean inskribatu eta okupatzea, horretarako idatzi den azterketan zehazten den bezala.

Bigarrena.- Ebazpen hau aipatu azalaren erregistroko jabe gisa agertzen diren guztiei jakinaraztea, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 30 laneguneko epean, egoki deritzoten oharpen eta alegazioak egin ahal izango dituztela azalduz.

Hirugarrena.- Azalera hori aprobetxamenduarekin konputatuko duen berdinbanaketa proiektua izapidetzea ez dela egokia aipatu interesatuei azaltzea, berau ebazpen honen aurrekarietan aipatutako eraikinak eraikitzerakoan gauzatu zelako, eta eraikin hauek indarrean dauden Udal Antolaketako Arau Subsidiarioek kontsolidatu egiten dituztelako.

Laugarrena.- Hartutako erabakiari atxikitako gainontzeko zehaztapenak betetzea."



Alkatetzak emandako ebazpenaren berri, aipatu azaleren jabe erregistroko jabe gisa azaltzen diren guztiei jakinarazi eta 30 lanegunetako epea eman zitzaien alegazio on-dorioetarako.

Epe horretan hiru alegazio jaso dira, eta alegazio horien aurrean egindako txosten teknikoak hirurak ezestekoak direla ondorioztatzen du, lehenengo biak, Aseplan Aholkularitza S.L.k Hirigoien 16-18ko jabekideen izenean aurkeztutakoak, informazio publikoan jarritako azterketarekin zer ikusirik ez duten alegazioak direlako; eta hirugarrena, Jose Telleria Irastorzak aurkeztutakoa, alegazioan esaten duena kreditatuko duen inolako dokumenturik ez duelako eransten eta udalean dauden aurrekarien arabera espazio hori herri jabaria delako.

Guzti honen aurrean, eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako batzorde informatzaileen proposamena ikusita, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, zera erabakitzen du:

- 1.- Jose Telleria Irastorza J.k aurkeztutako alegazioa ezeztea, alegazioan esaten duena kreditatuko duen inolako dokumenturik ez duelako eransten eta udalean dauden aurrekarien arabera espazio hori herri jabaria delako.
- 2.- Akordio honen aurrekarietan azaldutako egoera zuzentzearen, okupatu eta udalaren izenean inskribatzea garai bateko 32 Poligonoan zesiokoak ziren lursailak, "Lazkaoko Hiri Antolaketako Plan Orokor zaharreko 32. Poligonoaren antolaketa eta kudeaketarako izapidetutako hirigintza dokumentuei buruzko Azterketa: Gurutze inguruko barneko plazen eta jabari eta erabilera publikoa duten gainontzeko azaleren erregistroko egoera (indarrean dauden Antolaketako Arau Subsidiarioetako 13 H.J.A. Hirigoien)" dokumentuan jasotzen direnak.

#### IV.- UDAL LANGILEEN ORDAINSARIAK.-

Udal langileen ordainsariei dagokionean eta 2017ko Estatuko aurrekontu orokorren legeak finkatzen duenez, aurtengo urtean gehienera ere %1eko igoera izan dezaketela kontuan izanda, Gobernantza batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, udalaren langileen ordainsariak %1 igotzea erabakitzen du.

#### V.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Andonegi zinegotziak (EH Bildu) esaten du erreflexio txiki bat egin nahi dutela azken egunetako gertakarien inguruan udalak izan duen jarrerari buruz, iruditzen zaielako, gauzak bideratze aldera eta harremanak gerturatze aldera, horrelako puntuetan ere, elkarguneak bilatzeko baita ere balio beharko lukeela.

Alkateak erantzuten dio esanez gai honen inguruan, udalaren aldetik eman den erantzuna bi ikuspegitatik begiratu behar dela. Alde batetik, udalarentzat izan dezakeen erantzukizun ikuspegitik; eta beste alde batetik, baita ere, ulergaitza izan litekeelako ETA-kide izan da bati, eta zuen kurrikuluma izanda, egiten zaion omenaldian, era batera edo bestera udalak parte hartzea.

Gaiaren inguruan eztabaida egiten da.



VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeita bat direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

